

1. OINARRIZKO AZALPENAK

Sarritan, euskaraz idazten dugunean, agiri laburrak zalantza iturri izaten dira. Nola idatzi behar dugu data gutun batean? Eta, txeki bat betetzerakoan, nola adierazi letraz diru kopurua?

Atal honetan, elkartearen funtzionamenduan kezka sor dezaketen batzuk jaso ditugu. Bertan, asteko egunak, hilabeteak, data, zenbakiak eta ehunekoak idatziz ematerakoan kontuan izan behar diren hainbat idaztarauren azalpena topatuko duzu.





a. ASTEKO EGUNAK ETA HILABETEA

Zenbaitetan, gure elkarteak sortzen dituen jakinarazpen, ohar eta antzekoetan, gertakari edota ospakizunen berri emateko, zein egunetan izan edo izango den aipatu behar izaten dugu.

Horrelakoetan, asteko eguna ere eman behar izaten da. Eta honi, hainbat aldaketa egin behar izaten zaizkio NOIZ hori adierazteko.

Lehenik eta behin, eguna adierazten duen hitzari **-a** (adibidean parentesi artean idatzita dagoena) kenduko diogu, eta geldi-tzen den hitz bukaera kontuan izanda, ondoko araua beteko dugu:

-  Bokalez amaitzen denean **-an** erantsi: asteartean, igandean
-  Kontsonantez amaitzen denean, berriz, **-ean** gehitu: astelehenean, asteazkenean, ostegunean...

GAZTELANIAZ

Lunes
Martes
Miércoles
Jueves
Viernes
Sábado
Domingo

EUSKARAZ

Astelehen(a)
Astearte(a)
Asteazken(a)
Ostegun(a)
Ostiral(a)
Larunbat(a)
Igande(a)



Arau bera jarraituko dugu hilabetea idatzi behar dugunean, **-an** hilabetea bokalez amaitzen denean: abuztu**an**, abendu**an**; eta **-ean** kontsonantez amaitzen denean: urtarrile**an**, ekaine**an**...

GAZTELANIAZ

Enero
Febrero
Marzo
Abril
Mayo
Junio
Julio
Agosto
Setiembre
Octubre
Noviembre
Diciembre

EUSKARAZ

Urtarril(a)
Otsail(a)
Martxo(a)
Apiril(a)
Maiatz(a)
Ekain(a)
Uztail(a)
Abuztu(a)
Irail(a)
Urri(a)
Azaro(a)
Abendu(a)



Azaldutako idaztarau hauek baliagarriak izango zaizkizu, esate baterako, urteko kirol egutegia osatzeko. Eredu honetan, datak euskaraz adierazita daude; ikusi nola:

Kirol egutegia

ESKOLARTEKO ESKUBALOI TXAPELKETA 2003-2004

1. JARDUNALDIA (2003ko urriaren 4a) 2. JARDUNALDIA (2003ko urriaren 5a)

LIZARDI I - LIZARDI II
LA SALLE - SALLEKO A
ANTONIANO A - ANTONIANO B
TUTA - OSALBIRE

LIZARDI II - TUTA
SALLEKO A - LIZARDI I
ANTONIANO B - LA SALLE
OSALBIRE - ANTONIANO A

3. JARDUNALDIA (2003ko azaroaren 16a)

SALLEKO A - TUTA
ANTONIANO B - LIZARDI II
OSALBIRE - LIZARDI I
ANTONIANO A - LA SALLE

4. JARDUNALDIA (2003ko azaroaren 26a)

SALLEKO A - ANTONIANO B
LIZARDI II - OSALBIRE
LIZARDI I - ANTONIANO A
TUTA - LA SALLE

5. JARDUNALDIA (2003ko azaroaren 30a)

TUTA - ANTONIANO B
OSALBIRE - SALLEKO A
ANTONIANO A - LIZARDI II
LA SALLE - LIZARDI I

FINAL ERDIAK:

Abenduaren 15ean jokatuko dira.

FINALAK:

Abenduaren 22an jokatuko dira.



b. DATA

Data adierazteko bi era nagusi daude, zifra edo letra bidez. Bakoitzak bere berezitasunak ditu eta arreta eskaini behar zaie.

A. ZIFRA BIDEZ:

Data era honetan idazten dugunean, oso kontuan izan behar dugu elementuen hurrenkera. Ohikoa izaten da gaztelaniaren ordena erabiltzen duten ereduak ikustea. Euskarak, ordea, beste logika bati erantzuten dio. Horregatik, jakin behar dugu data zifraz eman nahi dugunean, ahoz erabiltzen dugun hurrenkera bera erabili behar dela. Hau da, hasieran urtea, ondoren hilabetea, eta azkenik, eguna.

GAZTELANIAZ

22 – 08 – 2003

EUSKARAZ

2003 – 08 – 22

B. LETRA BIDEZ:

Bestalde, letraz adierazteko, dataren osagaien ordenaz gain, horien idazkerari buruzko hainbat ezaugarri jakitea komeni da. Esaterako,



Urtea kontsonantez ala bokalez amaitzen den izan behar da kontuan:

- ✓ **Bokalez** amaitzen denean **-ko** jarri behar da urtearen ondoren: 2000ko, 2003ko, 2004ko....



- ✓ **Kontsonantez** amaitzen denean, berriz, **-eko** gehitu behar da, honela, 2001eko, 2005eko...

 **Hilabeteari -aren** bukaera erantsiko diogu

GAZTELANIAZ

2 de agosto de 2003

4 de octubre de 2005

EUSKARAZ

2003ko abuztuaren 2a

2005eko urriaren 4a

 Horretaz gain **toki izena** jartzeko bi aukera dituzu:

- a) Herriaren edo hiriaren izen soila jartzea. Ondorioz, dataren bukaeran aipatzen den **eguna** ere markarik gabe joango da.
- b) Bai tokiari bai egunari, **non** adierazteko bukaera erantsita. Kontuan izango dugu, beraz, hitza bokalez amaitzen denean **-n** erantsiko diogula eta, kontsonantez amaitzen denean, **-en**.

GAZTELANIAZ

Zarautz, 26 de junio de 2003

Zumaia, 26 de junio de 2003

EUSKARAZ

a) Zarautz, 2003ko ekainaren 26a

b) Zarautzen, 2003ko ekainaren 26an

a) Zumaia, 2003ko ekainaren 26a

b) Zumaian, 2003ko ekainaren 26an



C. ZENBAKIAK

A. ZENBAKI KARDINALAK:

Ohikoena zenbakiak zifra bidez idaztea bada ere, zenbaitetan kopuruak letraz ere adierazi behar izaten dira. Hau da txkeen kasua, adibidez. Zerrenda honetan adierazi dugu zenbakiak idazteko era zuzena. Hona hemen:

| | | | |
|-----------|-----------|-----------|--------------------|
| 0 | Zero | 17 | Hamazazpi |
| 1 | Bat | 18 | Hemezortzi |
| 2 | Bi | 19 | Hemeretzi |
| 3 | Hiru | 20 | Hogei |
| 4 | Lau | 21 | Hogeita bat |
| 5 | Bost | 22 | Hogeita bi |
| 6 | Sei | 23 | Hogeita hiru |
| 7 | Zazpi | | |
| 8 | Zortzi | 30 | Hogeita hamar |
| 9 | Bederatzi | 31 | Hogeita hamaika |
| 10 | Hamar | | |
| 11 | Hamaika | 38 | Hogeita hemezortzi |
| 12 | Hamabi | 39 | Hogeita hemeretzi |
| 13 | Hamahiru | 40 | Berrogei |
| 14 | Hamalau | 50 | Berrogeita hamar |
| 15 | Hamabost | 60 | Hirurogei |
| 16 | Hamasei | 70 | Hirurogeita hamar |



| | | | |
|------------|------------------|------------------|---------------|
| 80 | Laurogei | 800 | Zortziehun |
| 90 | Laurogeita hamar | 900 | Bederatziehun |
| 100 | Ehun | 1.000 | Mila |
| 200 | Berrehun | 2.000 | Bi mila |
| 300 | Hirurehun | 3.000 | Hiru mila |
| 400 | Laurehun | 4.000 | Lau mila |
| 500 | Bostehun | 10.000 | Hamar mila |
| 600 | Seiehun | 100.000 | Ehun mila |
| 700 | Zazpiehun | 1.000.000 | Milioi |

Kopuru konplexuagoak osatzeko badira kontuan hartzeko hainbat arau:

✓ **Ehun** hitzaren ondoren **eta** idatzi behar da

| | |
|--------------------|---|
| 100 – 1.000 | 225: berrehun eta hogeita bost |
| | 562: bostehun eta hirurogeita bi |
| | 908: bederatziehun eta zortzi |

✓ **Mila** hitzaren ondoren, aldiz, ez dugu ezer jarriko, ondoren ehunekoa badu:

| | |
|------------------|---|
| 1.000.... | 47.123: berrogeita zazpi mila ehun eta hogeita hiru |
| | 91.456: laurogeita hamaika mila laurehun eta berrogeita hamasei |

Bai, ordea, ehunekorik ez badu:

| | |
|------------------|--|
| 1.000.... | 47.023: berrogeita zazpi mila eta hogeita hiru |
|------------------|--|




✓ **Milioia** hitzaren ondoren, koma jartzen da eta, jarraian, milakoak idazten dira.


1.000.000..... 2.545.000: bi milioi, bostehun eta berrogeita bost mila
 3.260.836: hiru milioi, berrehun eta hirurogei mila zortziehun eta hogeita hamasei

Bestalde, kopuruak diruari dagozkionean, **euro** hitza idazten da. Zenbakiz **euro** bakarrik adierazten bada ere, letraz adieraztean euro zein zentimo hitzak erabili behar izaten dira.

125,50 € ehun eta hogeita bost **euro** eta berrogeita hamar **zentimo**

Ikusi adibidean txeke bat nola bete dezakezun





B. EHUNEKOAK

Ehunekoak adierazteko, kontuan izan behar dugu osagaien hurrenkera ez dela gaztelaniaz erabiltzen dena. Euskaraz, ehunekoa adierazten duen ikurra zenbakiaren aurretik idatzi behar da, tartean hutsune bat utzita.:

% 50

Beraz, honelako iragarkiak edo testuak idazteko kontuan izan azaldutakoa:

**BAZKIDEEK % 30eko
BEHERAPENA IZANGO DUTE
ELKARTEKO PRODUKTU GUZTIETAN**



C. ZENBAKI ORDINALAK

Elementu jakin baten ordena zenbakiz adierazteko erabiltzen ditugu ordinalak: lasterketa batean helmugaratze hurrenkeran, futbol taldeek txapelketan duten lekua...

Ordinalak letraz idazteko zenbakiari **-GARREN** erantsiko diogu bukaeran: bosgarren, laugarren... Baina zenbakia zifraz idazten dugunean, garren izaten dugun lekuan puntu bat (.) idatziko dugu.

1. Lehen, lehenengo
2. Bigarren
3. Hirugarren
4. Laugarren
5. Bosgarren
6. Seigarren
7. Zazpigarren
11. Hamaikagarren
20. Hogeigarren
30. Hogeita hamargarren
100. Ehungarren



d. LABURDURAK, SIGLAK ETA IKURRAK

a. *Laburdurak*

Hitz osoaren ordez, hitz horren laburdura idaztea komeni da askotan (inprimakietan, helbideetan...). Laburduraren bukaeraren puntua idazten da. Hona hemen hainbat hitzen laburdurak:

| | | | |
|-------|------------------|---------------|------------------------|
| Dcha. | Derecha | esk. | Eskuin |
| Izq. | Izquierda | ezk. | Ezker |
| Nº | Número | zk. | Zenbaki |
| S/ n | Sin número | z.g. | Zenbakirik gabe |
| Tlf. | Teléfono | tel. | Telefono |
| C/C | Cuenta Corriente | k.k. | Kontu Korronte |
| Pag. | Página | or. | Orrialde |
| Ej. | Ejemplo | adib. | Adibidez |
| Sra. | Señora | and. | And(e)re |
| Sr. | Señor | jn. | Jaun |
| Dpto. | Departamento | dptu. | Departamentu |
| Etc. | Etcétera | etb. | Eta abar |
| Fdo. | Firmado | lzpta. | Izenpetu(t)a |
| CP | Código Postal | PK | Posta Kode |
| Apdo. | Apartado | P.-Ku. | Posta kutxa |
| Dto. | Descuento | dtu. | Deskontu |



b. Siglak

Zenbait izenen hasierako letrek osatzen duten izen berria da sigla. Letra larriz eta jarraian idatzi behar dira siglak, tartean punturik jarri gabe. Hemen dituzu hainbat adibide:

| | |
|---|---|
| CAV | EAE |
| Comunidad Autónoma Vasca | Euskal Autonomia Erkidegoa |
| CIF | IFK |
| Código de Identificación Fiscal | Identifikazio Fiskaleko Kodea |
| DNI | NA |
| Documento Nacional de Identidad | Nortasun Agiria |
| IAE | EIZ |
| Impuesto Sobre Actividades Económicas | Ekonomi Jardueren gaineko Zerga |
| IRPF | PFEZ |
| Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas | Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga |
| IVA | BEZ |
| Impueto sobre el Valor Añadido | Balio Erantsiaren gaineko Zerga |
| IVEF | SHEE |
| Instituto Vasco de Educación Física | Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea |
| NIF | IFZ |
| Número de Identificación Fiscal | Identifikazio Fiskaleko Zenbakia |
| PVP | JP |
| Precio Venta al Público | Jendearentzako Prezioa |
| SA | SA |
| Sociedad Anónima | Sozietate Anonimoa |
| SCOOP | SKOOP |
| Sociedad Cooperativa | Sozietate Kooperatiboa |
| SL | SM |
| Sociedad Limitada | Sozietate Mugatua |
| SS | GS |
| Seguridad Social | Gizarte Segurantzza |



c. Ikurrak

Normalean, nazioarteko erakundeetan erabakitzen da ikurren idazkera. Batez ere neurtzeko unitateak, txanponak... adierazteko erabiltzen dira eta punturik gabe idazten dira.

| | |
|------|-------------------------|
| € | Euro |
| g | Gramo |
| m | Metro |
| min | Minutu |
| s | segundo |
| cm | zentimetro |
| l | Litro |
| h | Ordu |
| km/h | Kilometro orduko |
| kg | kilogramo |